

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2023ko irailak 22 · 1283 zenbakia



EMGE FEST LEGARREN DUZU PREST

euskara hurbil,
zu urrun heltzeko



aek euskara
praktikoa

EIBARKO AEK EUSKALTEGIA

2023-2024 EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak: A1,A2,B1,B2,C1,C2

16-18 urtekoentzat C1 prestatzeko dirulaguntza berria!

C2 prestatzeko ikastaroak!

MATRIKULA ZABALIK. irailaren 29ra arte

Sostoa 1, 1^o solairua · 943 20 13 79 · eibar@aek.eus



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

arat.
DENTISTAK BIZIAZ BIZI



**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Turkio Etxeberria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 831
www.aratclinika.com

@arat_klinika

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
70 Kolapate kalea.

- FISIOTERAPIA
- KIBRE, LESIOAK
- Patologia orra TRASTURNAK
- A-ortetik + ESPORTIBOAK

**FISIOTERAPIA
ZENTRIA**

ARRAKUSTA, 20
TUP: 943 63 06 42
an_mendia@hotmail.com

Ginekologia

Dra. Laura  *Dr. Alejandro*
Martinez Recas

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 58 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizenziatua
8/15/19

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 075 - 688 884 808
info@eibardclinicadental.com
www.eibardclinicadental.com

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 843-702888



Unzaga Plaza
Hortz Klinikak - Clinica Dental

M. Orazco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85



**P. Echeverria
A. Esnaola**

Hortz klinika - Clinica dental
Fermín Calbetón 19-1. 424. EIBAR
943 20 72 17 - 860 422 808
@ppjdbent



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Julen Bollain ekonomialari eta Mondragon Unibertsitateko irakasle eibartarrak 'En defensa de la renta básica. Por qué es justa y cómo se financia' izeneko liburua argitaratuko du hilaren 27an. .



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Rosa Parks

Ezaguna da gertaera. Ipar Ameriketako gertatua 1955. urtean, oker ez banabil. Garai haietan autobusetan beltzak eta zuriak ez ziren elkarren ondoan jartzen: beltzak atze parteko jarlekuetan eta zuriak aurrealdean.

Baina egun baten, gure Rosa autobusean zihoala, gizon-zuri batek ipurdia mugitzeko agindu zion atzekaldeko jarlekuetara, zuriaren jarlekuan zegoelako (ez dut aurkitu gizon zuri horren izenik). Egun horretan Rosak eutsi egin zion, bere eskubidea eta berdintasuna defendatuz, jarleku-tik mugitu gabe. Preso eraman zuten, baina ekintza horren ondoren legeak aldatzen joan ziren, berdintasunaren alde.

Ez naiz eibartarra, baina tarteka suertatzen da Eibarrera etorri beharra, eta sinestu egidazue: hiru aldiz esan didate ipurdia altxatzeko! Baina, Rosaren kasuan ez bezala, nik badakit nork eman didan ipurdia altxatzeko agindua. Behin, aspaldi, tabernako kamareroak “en castellano” (era zakar batean gainera); ez dut tabernaren izena gogoratzen (Armeria Eskolaren inguruan zen). Beste batean, Vodafone dendan ere “en castellano” (bailara guztian etxe horretako denda bakarra denean). Eta azkena, aurreko astean, Untzaga gaineko epaitegiko sarreraren mostradorean, “en castellano” hor ere.

Rosa jarlekuz aldatzera behartuta. Eta gu, gisa horretan, hizkuntzaz aldatzera behartuta. Bietan, neurri bereko injustizia. Baina, noiz izan behar dugu guk *nahikoa da* esateko ausardia, planto egitekoa? Noiz, era antolatu batean, gure hizkuntza aintzakotzat hartzen ez dutenei boikota? Rosa Parks-en antzera?

Bitartean, bagoaz zapalduok atzekaldeko jarlekuetan... otzan, oso otzan.

J.J. Aranburu

Hortik esanak



Gauz ikastea ez da ona, ordu horietarako programatuta gaude-eta nekatuta egoteko. Aldi berean, klasera joateko goizeko zazpirtan jaikitzeak ere ez die inolako onik egiten nerabeei, kognitiboki geroago hasten direlako funtzionatzen. Badira herrialdeak euren institutueterako sarrera zortziretatik hamarretara atzeratu dutenak, eta emaitza akademikoak hobetu dituzte. Zein da umeek hain goiz jaikitzeak motiboa? Helduek dituzten ordutegiak, ez dago besterik.

MARIANA ASTIZ, biokimikoa

Aspaldiko Joko Olinpikoetako irudiak ikusten ditudanean atentzioa deitzen didate bertako ospakizun labur eta soilek. Eta hor dotoretasuna eta errespetua nabaritzen ditut. Abebe Bikilak maratoia ortozik irabazi zuenean, helmugan besoak zabaldu zituen zertxobait eta ihes egin zuen, presaka bezala. Di Stefanok inoiz ez zituen ospatzen penaltiz sartutako golak. Edmund Hillaryk Everest zapaldu zuenean Tenzing Norgayekin, hara heltzen ziren lehenak izanda ere, argazkiak atera zituen, baina bera ez zen azaldu bakar batean ere. Orain, ordea, sare sozialetan flipatleten argazki eta bideoen jarria besterik ez dugu. Gauza bat da umeak bagina gure artean pikatu eta besoak goratzea, baina lotsa pixka bat eman beharko liguke 40 urterekin Hinault garela pentsatzeak.

ANDER IZAGIRRE, zutabegilea

Munduko hainbat tokitan intsektuak desagertzen doazen honetan, jendeak jakin beharko luke intsekturik gabeko mundu batean goseteak berehala loratuko lirakeela. Uzteireparatuz, euretako %75 euren beharra dute errentagarriak izateko. Gure aliatu horien desagertpenarekin, larreak simaur toneladen azpian itoko lirakeke: simaur horren deskonposizioan diharduten kakalardo eta eulirik gabe, akabo! Horregatik, pestizida eta ongarriei aurre egiteko sasoia da!

DAVE GOULSON, Biologia irakaslea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ORDUANDIK → Harrezkero, ordutik hona. “Orduandik ez dot gehixago ikusi zuen aitta”.

ORDUAK JUAN ETA ORDUAK ETORRI → Orduak aurrera, denborak aurrera egin. “Orduak jua eta orduak etorri, hamen nozu zure zain egun erdixan”.

1956

Condal tindategiko lisatzaileak

Sasoi batean, Eibarko emakume asko aritu ziren lisatzaile modura etxetik kanpora beharrean. Plazaolaren irudi honetan, Condal tindategian lan egiten zuten andrak daude, bi mutikorekin batera.



Farmaziak

BARIXAKUA 22
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 23
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
DOMEKA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 25
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 26
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 27
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 28
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
BARIXAKUA 29
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Miguel Magro Alvarez**. 74 urte. 2023-09-12.
- **Miguel Anitua Unzetabarrenetxea**. 89 urte. 2023-09-14.
- **Dolores Aguilera Reboredo**. 93 urte. 2023-09-15.
- **Maria Teresa Egaña Lopez**. 91 urte. 2023-09-15.
- **Jesus Maria Iraola Zubizarreta**. 71 urte. 2023-09-17.
- **Fara Onandia Estrada**. 88 urte. 2023-09-18.
- **Eleobel Alonso Gutierrez**. 79 urte. 2023-09-18.
- **Maria Teresa Txurruka Ansorregi**. 86 urte. 2023-09-20.

Jaiotakoak

- **Naia Barroso Fernandez**. 2023-08-18.
- **Unai Barrios Camarzana**. 2023-09-09.



Publiko orokorrarentzat zabalduko dute aurten Zinemaldiko ludoteka zerbitzua

Bosgarren urtez jarraian Eibarko Zorionak Ludoteka Donostiako Zinemaldiko Puxika Gorria ludotekan egongo da lanean, Zinemaldiak irauten duen bitartean (gaurtik hasita, irailaren 30era arte). Aurreko edizioetan bezala, Puxika Gorriak 120 metro karratuko espazioa izango du San Telmo Museoa. Familia eta lanaren arteko kontziliazioa sustatzeko, orain arte akreditatutako pertsonen eta Zinemaldiaren antolakuntzako langileen seme-alabentzat eskaini da zerbitzua, baina aurten, berrikuntza gisa, ludoteka zerbitzua publiko orokorrarentzat zabalduko dute asteburuan, bihar

eta etzi, arratsalde. Horrela, zapatu edo domekako saioetako baterako sarrera izanez gero, doako ludotekarako hiru orduetegi eskainiko dituzte, aukeran (15:00etatik 18:30era bitartean), edukiera bete arte. Sei hilabete eta 12 urte bitarteko haurrentzako gunea izango da. Zerbitzua erabiltzeko ezinbestekoa da aldeztu aurretik plaza erreserbatzea, formulario bat betetzea, eta erositako sarrera aurkeztea. Horretarako, Zorionak ludotekara joan daiteke zuzenean edo, bestela, 688876518 telefono zenbakira deitu edo ludotekazorionak@gmail.com helbide elektronikora idatzi.

“Instalazio fotovoltaikoa auzokideen erkidegotan” gidaliburua online

Atzo aurkeztu zuten “Instalazio fotovoltaikoa auzokideen erkidegotan” gidaliburua Debegesan. Energia berriztagarriak eta auto-kontsumoa herritarrei, nagusiki auzokideen erkidegotan bizi direnei hurbiltzeko asmoz egin dute gidaliburua, eta atzoko saioa ere

asmo horrekin antolatu zuten. Eskuliburuan, besteak beste, panel fotovoltaikoak instalatzeko jarduketak fasez fase deskribatuta daude, “interesa dutenei ahalik eta gehien laguntzeko”. Online jarri dute eskuragarri gida, energia.debegesa.eus webgunean.



Osasuna modu aktiboan zaintzen ikasteko tailerra egingo dute Untzagan

Osasuna zaindu eta prebentzioa lantzeko programa garatuko dute Untzaga gizarte etxean (jubilatuetan), urteko azken lauhilekotik aurrera. Arduradunen berbetan, “martxoan egin genuen aurkezpena eta gero, Osakidetza Paziente Bizia-Paciente Activo ekimenari lotutako lehen tailerra ipiniko dugu martxan, edozein gaitasun kroniko dutenei eta haien zaintzaileei zuzenduta”. Urriaren 19an hasiko da “Nire osasuna aktiboki zainduz” izeneko tailerra eta guztira zortzi saio izango dira, egunetan, 11:00etatik 13:00era bitartean. Bi begiralek zuzenduko dituzte saioak, taldean egingo dira, eta izena ematen duten guztiek hartuko dute parte. Azaldu dutenez, “Osakidetza parte-hartzaile kopurua ahalik eta lasterren zehazteko eskatu digu, beraz, lehenbailehen eman behar da izena”. Antolatzaileek aurreratu dutenez, norberak bere burua zaintzen ikasteko beste tailer batzuk abiatuko dira laster, tartean beste herri batzuetan arrakasta handia izan duen “Nire ongizate emozionala zainduz” izenekoak. Eta, aipatutakoekin batera, oinarriko lehen sorospenei buruzko tailerrak ere ari dira prestatzen.



PloneConf 2023 Nazioarteko Konferentzia Teknologikoa Eibarren egingo da, urrian

Software librean oinarritutako Plone plataformaren 2023ko urteko batzarra (PloneConf) Eibarren izango da, urriaren 2tik 8ra. Mundu mailako topaketa izaten da eta, aurtengoa CodeSyntax enpresa eibartarrak antolatu duenez, Eibarren egingo da (Markeskua Jauregian eta Coliseo antzokian). Plone software librearen arloan erreferentziatzeko CMS bat da, web edukia kudeatzeko sistema bat,

eta Python programazio hizkuntzan oinarrituta dago. Topaketako muina (hitzaldiak) Coliseon izango dira, urriaren 4, 5 eta 6an. Markeskuan, berriz, ikastaroak eta formazioa eskainiko dira, urriaren 2 eta 3an, eta Plone tresnaren garapen berriak egingo dira 7 eta 8an, baita Markeskuan ere. Plone softwarearen inguruko hitzaldi, lantegi eta abarrez gain, konferentzia hauek bakoitzean zuzenean CMS

honekin zerikusia izaten ez duen keynote edo hitzaldi nagusi bat izaten da. 2023koa Olatz Perez de Viñasprek emango du. Informatikari euskalduna, irakaslea eta ikerlaria da bera, EHUren Informatika Fakultateko IXA taldean eta Hitz hizkuntza teknologien zentroan.

Erabiltzaileentzat doako saioa

Egitarauaren baitan, erabilerakasuak biltzen dituen tokiko saioa antolatu dute urriaren 6rako. Coliseo antzokian egingo da. Saio honi buruzko zehaztasun guztiak, baita PloneConf 2023 topaketaren ingurukoak ere, <https://2023.ploneconf.org> webgunean aurkituko dituzue.

Pentsio publiko eta duinak eskatzen jarraituko dute astelehenero Untzagan

Udako etena eta gero, Eibarko Pentsiodunen Taldeak berriz ere heldu die asteleheneroko mobilizazioei, eta aste honetako elkarretaratzean 145 bat lagun bildu ziren Untzagan, pentsio publiko eta duinak eskatzeko. Politikariei egindako eskaera nabarmenak “1.080 euroko gutxieneko pentsioa, pentsio guztiei benetako

KPIa igotzea eta pentsioen genero-arrakala amaitzeko neurri eraginkorrak hartzea” dira eta, premiazkoak ikusten dituzten gutxieneko horiek defendatzeko, asteleheneroko elkarretaratzeekin jarraitzeaz gain, “manifestazio garrantzitsuak” egingo dituztela iragarri dute, “eskatutako guztia lortu arte”.





Landan Ekin lehiaketa antolatu dute lehen sektoreko ekintzaileen proiektuentzat

Landa eremuan ekintzailetasuna eta elkarlana sustatzeko baliogarria izango den egitasmoa, Landan Ekin izeneko, ipini dute martxan Gipuzkoako landa garapen elkarteek (Landaola Federazioak). Lehiaketa lehen sektoreko eta elikadura balio kateko enpresa fisiko eta juridikoei zein elkartei zuzenduta dago eta Gipuzkoako lurralde historikoan garatzen edo garatuko diren proiektuak aurkeztu behar dira. 2023-2024 urteetan garatu edo amaituko diren proiektuak izan behar dira, eta dokumentazioa bi zatitan banatuta aurkeztu beharko da, ideia edo egitasmo bakoitzarentzako: datu pertso-

nalak alde batetik, eta proiektu edo egitasmoaren informazioa bestetik. Proiektuak landaola@landaola.eus helbidean edo Gipuzkoako Landa Garapen Elkarreetako bulegoetan aurkeztu behar dira. Urriaren 11ra bitarteko epea dago horretarako. Guztira sei atal bereziko dira, eta atal bakoitzeko 2.500 euroko saria emango da. Horrez gain, La Caixa “Rural Talent” 1.000 euroko saria ere egongo da. Informazio gehiago nahi izanez gero, www.landaola.eus webgunean begiratu edo Debemen Debabarreneko Landa Garapenerako elkartearen (943 744 067 telefonoan) galdetu.

Amañako Tigrea boxeolaria hil da

Jose Perez Cid “El Tigre de Amaña” atzo hil zen, 75 urterekin. Boxeoan jardun zuen gaztetan eta, ondoren, beste boxeolari batzuk prestatzen ibili zen, tartean Ttatt gimnasioko Ramon Quina. Aurtengo sanjuanetan Udalak omenduetako bat izan zen. Goian bego.



Estitxu Garai adituak gehiago eta hobeto saltzeko gakoak azalduko ditu eguaztenean Errebalen

Eibarko merkatariarentzat bereziki antolatutako doako jardunaldia egingo da Errebal Plazan eguaztenean (irailak 27), erabilera anitzeko gelan (A aretoa), 14:30etik 15:45era. Komunikazioan eta estrategian aditua den Estitxu Garai Artetxek “Gehiago eta hobeto saldu. Brandin-eko oinarriko ikasgaiak” izenburuari jarraituko dio hitzaldian eta, besteak beste, komertzioak salmenta modu berrietara egokitzeko dauden tresna eta baliabideak azalduko ditu. Saioa doakoa izango da, baina, antolaketa-lanak errazte aldera, aurretik izena ematea eskatzen dute. Horretarako, 943254083 edo 943206669 telefono zenbakietara deitu dezakezue.





El Corte Inglés enpresak gure herrian zuen aktibitatea erabat etetea erabaki dute

Orain dela bi urte atek itxi eta bide digitala hasi eta gero, El Corte Inglesak Eibarren zuen aktibitatea erabat amaituko du, orain arte martxan zegoen online denda (*dark store*) itxiko du eta. Horrela, Errebal kaleko bidaia-agentzia baino ez da geratuko zabalik. Eibarren eskaintzen ziren zerbitzuak Bilbora eta Gasteizera eramango dituzte eta, enpresaren arabera, “lanpostuei eutsi egingo zaie”. El Corte Inglesak 2009an zabaldu zituen Ego

Gain kaleko eraikinaren atek, 80 milioi euroko inbertsioa egin ondoren. 2021eko uztailaren 30ean merkataritza-gunea itxi eta biltegia online salmentak egiteko erabiltzen hasi ziren.

Enpresaren asmoa zein den jakin eta, berehala, Eibarko EH Bilduk idatziz azaldu du horren inguruko iritzia, El Corte Inglesaren itxierak “PSE-ren apustu komertzialaren porrota irudikatzen duela” adierazita, besteak beste.

Irailaren 28an izango da Artean-Ix Ikasgune Feministaren lehen saioa

Entreamigos- Lagun Arteanetik abiatutako Artean-Ix Ikasgune Feminista berrir martxan dago. “Zaintza, taldeak eta denborak” izenburuko saioarekin hasiko dira, irailaren 28an, Ermuko Eskilara-pekona, 18:00etatik 20:00etara: “Urtean zehar egindako saio eta Guatemalako emakume eta elkarrekin elkarbanatutako esperientzia eta ikasketetatik, oraingoan dinamika desberdinen bitartez taldean gustora egoteko eta denboraren kudeaketarako tresnei buruz arituko gara”. Saioak irekiak dira.



Lanera Bideratuz egitasmoa abiarazi du Armeria Eskola Elkarteak

Armeria Eskola Elkarteak (AEE), Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailaren laguntzarekin batera, langabetuei zuzendutako gizarteratze eta laneratze programa bat jarri du abian, laneratzea errazteko. Gainera, parte-hartzaileen eskura jarriko da inguruko enpresetara hurbiltzeko aukera. Era berean, zuzenean ezagutu ahal izango dituzte enpresek kontratatzerakoan bilatzen dituzten trebetasunak eta

gaitasunak. Programa doakoa da, bi hilabeteko iraupena izango du, eta fase hauek izango ditu: lan-orientazioa (banakakoa + taldekoa); garapen pertsonala; enpresetara hurbiltzea; eta laneratzea. Izena emateko epea urriaren 16ra arte egongo da zabalik. Informazio gehiagorako edo izena emateko 943 20 32 44 telefonora deitu edo elkarte@armeriaeskola.eus helbidera idatzi daiteke (Ainara Arrate).



‘Berrerabili eta berrasmatu’ tailerren laugarren edizioa urritik abendura egingo da



Heltzear dago Eibarko Udalak antolatzen duen "Berrerabili eta berrasmatu" tailerren edizio berria. Aurrematrikulak egiteko epea astelehenean (irailak 18) zabaldu zen, eta 13 tailer eskainiko dira Eibarko denda eta erakundeen laguntzarekin. Tailerren helburua da eguneroko objektuak eta materialak konpontzen, berrerabiltzen, birziklatzen eta berrasmatzen ikastea, haien bizitza baliagarria luzatzeko eta, horrela, hondakin-kopurua murrizteko.

Eibarko Ingurumen Sailak ‘Berrerabili eta Berrasmatu’ tailerren edizio berri bat antolatu du; programaren helburua da jarraibide batzuk ematea eguneroko objektu eta materialen bizitza baliagarria luzatzen ikasteko, haien berrerabilpena eta birziklapena sustatzeko eta balio erantsia emateko.

Tailerrak denden eta establezimenduen lankidetzarekin (Adarabar, Baratze, El Taller de Manualidades, Eskusutxo, Harixan eta Ludoteka Zorionak) eta beste entitate batzuekin batera (Klub Deportiboa eta Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua) antolatu dira; jarduerak denda eta entitate horietan egingo dira.

Aurreko hiru edizioen arrakasta eta harrera ona ikusita, Udalak oraingoan urte honen amaieran antolatzea erabaki du. Antolatzaileek azaldu duten moduan, “gaur egun birziklatzea eta berrerabiltzea ezinbestekoak dira hondakinen sorrera eta material berrien fabrikaziotik eratorritako efektu kutsatzailea mu-

Tailer hauen bidez etxean ditugun objektuak eta materialak modu atsegina eta ludikoan aprobetxatzeko ideiak jaso daitezke

rrizteko”. Eta, horregatik, “Eibarko Udalak lanean jarraitu nahi du politika jasangarriagoak garatuz eta gizarte osoa borroka horretan inplikatzuz”, diote. Tailer horiei esker, etxean ditugun objektuak eta materialak modu atsegina eta ludikoan aprobetxatzeko ideiak jaso daitezke.

Izena emateko epea zabik

Tailerretarako aurrematrikulak formalizatzeko epea zabalik dago, eta

ETXEKO OINARRIZKO KONPONKETAK: AROTZERIA urr. 17, 24 eta 31; aza. 7, 14 eta 21 / 17:30 – 19:30

Azitain OLHUI - IMFPB / Elebiduna

IKASI ZURE BIZIKLETA KONPONTZEN urriak 18 / 18:00 – 20:00

Errebal plaza / Elebiduna

ETXEKO OINARRIZKO KONPONKETAK: ESTALDURAK ETA PINTURA: urr. 19 eta 26; aza. 2, 9, 16 eta 23 / 17:30 – 19:30

Azitain OLHUI - IMFPB / Elebiduna

SORTU ZURE OGITARTEKOAK ETA BESTELAKOAK ERAMATEKO ZORROA: urriak 21 / 11:00 – 12:30

Ludoteka Zorionak / Elebiduna / Haurrak zaintzeko aukerako zerbitzua (4-10 urte bitartekoak eta gehienez bi haur)

TAPIZATU ETA ESTREINATU: ZAHARRETIK BERRIRA: urriak 28 / 10:30 – 13:00

El Taller de Manualidades / Gaztelera

BIRZIKLATU ERABILTZEN EZ DUZUN ARROPA: azaroak 4 / Bi txanda: 16:00 – 18:00 eta 18:00 – 20:00

Harixan / Euskara (16:00 – 18:00) eta gaztelania (18:00 – 20:00)

ERABILI BOTILA BAT ZURE HODEILANPARA SORTZEKO: azaroak 8 / 18:30 – 20:00

Ludoteka Zorionak / Euskara / Haurrak zaintzeko aukerako zerbitzua (4-10 urte bitartekoak eta gehienez bi haur)

SORTU TAPIZAK ERABILTZEN EZ DITUZUN JANTZIEKIN: azaroak 11 / 11:00 – 13:00

Adarabar / Elebiduna

PAPERAREKIN JOLASEAN: ABALORIOAK ETA OSAGARRIAK: azaroak 18 / 11:00 – 13:00

Eskusutxo / Elebiduna

APROBETXAMENDUZKO SUKALDARITZA: ERREZETA BERRIAK: azaroak 22 / 18:00 – 20:00

Portaleko sukaldea / Elebiduna

BIZIBERRITU ZURE ALTZARI ETA DEKORAZIO OBJEKUAK: azaroak 25 eta abenduak 2 / 10:30 – 13:30

El Taller de Manualidades / Gaztelera

APROBETXAMENDUZKO SUKALDARITZA: POSTREAK ETA ASKARIAK: abenduak 12 / 18:00 – 20:00

Portaleko sukaldea / Elebiduna

BERRASMATU ETXERAKO APAINGARRIAK BEIRARI BIZITZA BERRIA EMANEZ: abenduak 14 / 18:00 – 20:00

Adarabar / Euskara

irailaren 28ra arte egongo da izena emateko aukera. Aurrematrikula Pegoran egin beharko da edo Udaleko webguneko formularioa betez.

Tailerrak adin nagusiko lagunentzat dira eta lagun bakoitzak gehienez hiru tailerretan eman ahalko du izena. Saioteko batean matrikulatutako lagun kopurua ezarritako gutxieneko ikasle kopurua baino handiagoa ez bada, bertan behera geratuko da tailerra.

Eta aurrematrikula-kopuruak gainditu egiten badu eskuragarri dauden plaza-kopurua, zozketa egingo da. Udalak onartuen zerrenda argitaratuko du Pegoran eta udal-webguneko ondorengo ataletan: 'Ikastaroak, lehiaketak eta tailerrak' eta 'Laburrak eta abisuak' ataletan, urriaren 2an.



Berritasun gisa, onartutako lagunek urriaren 3tik 10era egingo dute matrikula, Udalaren web-orriko "Ikastaroak, lehiaketak eta tailerrak" atalean eskuragarri dagoen inprimakia betez. Matrikula Pegora Herritarrentzako Zerbitzuaren Bu-

legoko sarrerako ate ondoko postontzian laga beharko da, (astelehenetik domekara, 07:30etik 21:30era).

Informazio gehiago nahi izanez gero, interesa dutenek ingurumena@eibar.eus helbidera idatzi edo 943708408 telefonora dei dezakete.

“Nahi politikoa balego, oinarrizko errenta egingarria izango litzateke”

JULEN BOLLAIN • Ekonomialaria eta unibertsitateko irakaslea



Julen Bollain ekonomialari eta Mondragon Unibertsitateko irakasle eibartarrak ‘En defensa de la renta básica. Por qué es justa y cómo se financia’ izeneko liburua argitaratuko du hilaren 27an Daniel Raventos, Jordi Arcarons eta Lluís Torrensek batera. Liburua oinarrizko errenta unibertsalaren azterketa zehatza egin dute, teoria datuetara ekarriz, euren tesia datuen bitartez berretsiz eta azken aldian gizartean gero eta gehiago eztabaidatzen den gai bati argia emanez.

Oinarrizko errenta unibertsalaren bitartez herritar bakoitzak diru kopuru publiko bat jasoko luke, “herritar guztien existentzia materiala bermatua izan dadin”, neurri honen defendatzaileen berbetan. Neurri horrek aldeko eta kontrako iritziak jaso ditu, eta liburu honen bitartez kontrakoen argudioak ezeztatzen saiatu dira Bollain eta beste hiru egileak.

Oinarrizko errentaren inguruan jarduten duzue liburuan, baina zein alderdi landu duzue zehazki?

Alde batetik, arlo filosofiko eta politiko batetik abiatuz oinarrizko errenta zergatik den justua aztertu nahi izan dugu. Hau da, justua dela gizarteari oinarrizko eskubideak eta bere existentzia materiala bermatzeko. Eta bestetik, oinarrizko errentarekin kritikoak direnek oinarrizko errenta ezin finantzagarria dela esaten dutenez, hori finantzatzeko dirurik ez dagoela, kritika horri erantzuna eman nahi genion. Horretarako, datu errealek erabiliz, Espainiako Estatistika Institutuaren datuak hartuz, oinarrizko errentaren mikrosimulazio analisi batekin oinarrizko errenta nola finantzia daitekeen erakutsi dugu. Hau da, Espainian oinarrizko errenta nola finantzatu genezakeen. Horrez gain, eta mundu

mailan lehen aldiz, Europan oinarrizko errentaren finantzazioa nola egin aztertu dugu. Ikerketa horrekin, Europa mailan oinarrizko errenta finantzagarria dela erakutsi duten lehen egileak izan gara. Erreforma fiskalen bitartez badago nahikoa diru oinarrizko errenta finantzatzeko.

Europako herrialde bakoitzaren azterketa egin duzue ala Europar Batasuna bere osotasunean hartu duzue?

Europar Batasuneko herrialde bakoitzeko pobrezia atalasea kalkulatu dugu eta kopuru horretan zehaztu dugu herrialde bakoitzaren oinarrizko errenta. Orduan, herrialde bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, Europar Batasunean oinarrizko errenta nola finantzatu beharko litzatekeen aztertu dugu. Mundu mailan lehen aldiz egiten da hau eta mundu akademikoan bilakaera izango du.

Lau autorek hartu duzue parte liburuan. Zeintzuk dira besteak?

Jordi Arcarons Bartzelonako Unibertsitateko katedraduna da eta, Lluís Torrens bezala, zenbaki kontuekin eta estatistikekin oso trebea da. Torrensek, hain zuzen ere, Kataluniako Generalitatean egiten du lan afera sozialen eta abarren idazkari nagusi bezala. Gero, Daniel Raventos dugu, oinarrizko errentaren inguruan



Oinarrizko errentaren aldeko argudioak modu zientifikoa islatzen saiatu dira liburuan. EKHI BELAR

mundu mailako ospea duena. Doktorea eta irakaslea da Bartzelonako Unibertsitatean, eta nire doktoretza tesiaren zuzendaria izan zen.

Bakoitzak alderdi bat landu du ala elkarrekin jardun duzue?

Liburuan esku ezberdinek parte hartu dutela ez nabaritzen saiatu gara; baina, normala denez, lana banatu dugu. Jordik eta Lluisek zenbaki kontuak landu dituzte; eta Danielek eta biok, ikuspuntu filosofikotik eta politikotik abiatuz, marko teorikoa eta filosofikoa landu dugu. Gainera, sarrera eta epilogoak idatzi ditugu, eta liburuaren alderdi guztiak batu ditugu.

Nola finantzatu daiteke oinarrizko errenta?

Erreforma fiskal baten bidez eta, hori proposatzen dugun neurrian, konpentsazio klausula bat ezartzen dugu. Honek esan nahi du erreforma fiskala aplikatu eta gero, aberatsena den %20aren artean ez bazaude eta neurri horrekin galtzen ateratzen bazara, hori konpentsatu egiten dela. Orduan, erreforma fiskalaren eta klausularen bitartez, oinarrizko errenta finantzatzea lortzen dugu. Nola? Aberastasunaren birbanatze bat izango balitz bezala. Horrela, aberatsena den %20ak

“Proba pilotuekin datu enpirikoak ditugu eta badakigu errealitatean oinarrizko errentak nola funtzionatu dezakeen”

zerga gehiago ordaindu beharko litzuke eta beste %80ak bere egoera ekonomikoa hobetuko luke.

Askok diote paperak dena eusten duela, baina errealitatean ekarri behar dela. Zuek zenbaki errealak erabili dituzue eta hainbat tokitan proba pilotuak egin dira. Probek zer erakutsi dute?

Mundu mailan 200 proba pilotu baino gehiago egin dira dagoeneko. Bai, askok diote paperak dena eusten duela eta egia da tradizionalki ez dugula erremintarik eduki kritika horri erantzuteko; baina, orain, proba pilotuekin datu enpirikoak ditugu, eta badakigu errealitatean oinarrizko errentak nola funtzionatu

BIDEOA



dezakeen. Proba pilotuak probak dira eta ez dira oinarritzko errenta integralak aplikatu, baina lau ondorio nagusi atera dira probetatik: Batetik, ongizate ekonomikoa hobetzen dela. Bigarrenik, pertsonen gaitasun kognitiboak hobetzen direla. Logikoa da, oinarritzko errentak segurtasuna ematen duelako. Hirugarrenik, pertsonak konfiantza gehiago izatea lortzen dutela. Ez bakarrik eurengan, baizik eta besteengan eta erakundeengan. Hau dena, guztion arteko borroka izatetik, kolaborazio eta komunitate kontua izatera pasatzen da. Ikusi da oinarritzko errentarekin pertsonak gehiago kolaboratzen dutela elkarrekin. Eta laugarrenik, ikusi da oinarritzko errentarekin jendeak ez duela bere lanpostua lagatzen. Are gehiago, jendea gehiago aktibatzen da. Eta zergatik gertatzen den hori? Ekonomian 'Pobreziaren tranpa' deitzen zaion kontzeptuari lotuta dago. Oinarritzko errenta baldintzatua jasotzen baduzu eta lan eskaintza bat jaso zero, balantzan jartzen duzu lana hartzeak merezi dizun ala ez, lana hartzean errenta hori galtzen duzulako, denbora eskaini behar diozulako eta agian kontziliazioan laguntzen ez dizulako, edo dena delakoa. Oinarritzko errentarekin ez da hori gertatzen, lurzorua delako, lana eduki ala ez guztiok jasotzen dugun zerbait.

Zuen kalkuluen arabera, gaur egun EAEn eta Espainian zenbatekoa izan beharko litzateke oinarritzko errenta?

Pobrezia atalasa ikusita, EAEn urtean 12.550 euro inguruko oinarritzko errenta jaso beharko luke bakoitzak, hau da, 1.000 euro inguru hilean. Espainian pobrezia atalasa beherago dago, beraz, hilean 800 euro inguru jaso beharko litzuzke herritar bakoitzak.

Proba pilotuetatik harago joateko saiakerak egin dira? Badago zerbait gertu?

Gero eta mugimendu gehiago dago. Oinarritzko errentak hiru olatu izan ditu historian zehar. Lehenengoa, Nixon administrazioarekin probatu zen AEBan, 1969an. Plana senatutik pasatu zen, baina kongresuak atzera bota zuen. Gaur egun bizi dugun olatua 2016an hasi zen Suitzan. Erreferenduma egin zen oinarritzko errenta ezartzea ala ez bozkatzeko. Suitza oso herri kontserba-



dorea da eta hasierako inkestek zioten %10ak bakarrik egingo zuela oinarritzko errentaren alde. Gainera, ez zen finantzazioaren azterlanik aurkeztu eta ez zuen zentzu askorik. Hala ere, alderdi eta sindikatu guztiak aurka izan arren, azkenean %25ak egin zuten oinarritzko errentaren alde, eta Zurich eta Genevako kantoietan %50 lagun baino gehiagok bozkatu zuten baietz. Hau da, ikusi zen hirien eta landa eremuen artean ezberdintasunak zeudela gaiaren inguruan. Gero, Finlandiako proba pilotua etorri zen, eta orain urtebete herri-ekimen bat eraman zen Eusko Legebiltzarrerara eta oinarritzko errenta onartzea bozkatu zuten alderdiek. Elkarrekin Podemosek eta EH Bilduk baiezkua eman zuten, baina PSEk, EAJk eta PP-Ciudadanosek ezezkoa, eta atzera bota zuten. Mundu mailan gero eta ekimen gehiago dago. Oraindik ez da gauzatu, baina zerbait mugitzen ari da eta liburuaren bigarren kapituluak gai hori lantzen du. Hau da, nola azken bi hamarkadetan oinarritzko errentaren inguruko eboluzio positiboa egon den. Askotan galdetzen didate zein pauso eman behar diren oinarritzko errentara heltzeko eta zaila da erantzutea. Herri mugimenduak behar dira, pedagogia asko egin behar da, baina pausorik garrantzitsuena politikoa da. Badugu dirua, badakigu nola egin; beraz, nahi politikoa balego, oinarritzko errenta egingarria izango litzateke.



ASTEKLIMA

Euskadiko Klima eta Energiaren Astea
Semana del Clima y la Energía de Euskadi

2023

Irailaren 22tik urriaren 1era
www.asteklimateus
INFORMAZIO GEHIAGO:
ingurumena@eibar.eus 943 70 84 08

ERAKUSKETA Untzagan
"Klima-aldaketari aurre"
Irailak 25: 10:00/13:30, 17:00/19:30
Irailak 26: 10:00/13:30
– Ingurumen hezitzaileek dinamizatuta.
EURIA EGITEN BADA, ERREBAL PLAZAN

JOLASAK Untzagan
Irailak 25: 17:00/17:45, 18:30/19:15
– 6-12 urtekoentzat, aldaketa klimatikoari buruz. EURIA BADA, ERREBAL PLAZAN

DOKUMENTALA Coliseon
"Los límites de nuestro planeta.
Una mirada científica"
Irailak 27: 18:00 (90 minutu)
– Sarerak doan (Coliseo eta Kutxabank)

HAUR ANTZERKIA Coliseon
"Azken eguzkilorea"
Irailak 28: 18:00 (90 minutu)
– 5-12 urtekoentzat. Sarerak doan (Coliseo eta Kutxabank)

INTERPRETAZIO-IBILBIDEA
"Gure basoak eta klima aldaketa"
Urriak 1: 09:30 (4 ordu)
– Santa Kurutz ermitatik. Zailtasun baxua.
Plaza mugatuak. Izen-ematea: irailaren 28ra arte (info@lurgaita.org)
EZINBESTEKOA DA ZURE PLAZAREN BAIJETAPEA POSTA ELEKTRONIKOZ JASOTZEA



FUNEUSKADI
Grupo funerario



TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria



TANATORIO FUNERARIA MUGICA ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xalilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 18</p>
-----------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

euskara hurbil,
zu urrun heltzeko



aek

euskara praktikoa

EIBARKO AEK EUSKALTEGIA

Euskara ikastaroetarako **AZKEN EGUNAK**
MATRIKULA ZABAIK irailaren 29ra arte

- Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1, C2
- 16-18 urtekoek C1 mailako ikastaroa 20 euro

Sastoa kalea 1, 1º 943 20 13 79 eibar@aek.eus

BERBETAN



Euskara praktikatzeko

BGURASOAK
ERBETAN



Familia-giroa euskalduntzeko

BONGI ETORRI
ERBETAN



Kulturartekotasuna eta euskara bultzatzeko

PROGRAMAK MARTXAN IZANGO DIRA LASTER eta doan!

943 200918 – INFORMAZIO GEHIAGO – www.etakitto.eus



Iaz jasotako guztia Bergaran kokatuta dagoen Elikagaien Bankura joan zen.

Munduari Kolorea Ematen elkarteak janari-bilketa egingo du irailaren 29-30ean

Gipuzkoako Elikagaien Bankuari laguntzeko elikagai-bilketa antolatute Munduari Kolorea Ematen GKEko kideek irailaren 29 eta 30erako. Iazko emaitza ona ikusita –1.214 elikagai kilo batzea lortu zuten–, aurten ere Untzagan egongo dira ekitaldi desberdinekin: tonbola, jokoak...

Orain dela bi urte "Munduari Kolorea Ematen" izeneko proiektua sortu zuen Eibarko gaztetxo talde batek, Elikagaien Bankurako janaria lortzeko asmoz. Aurten ere Untzagan izango dira, irailaren 29an eta 30ean, premia dutenentzako jamaeria eta dirua jasozten.

Aurtengoa hirugarren edizioa izango da. Iaz oso emaitza onak lortu zituzten. "1.214 kilo elikagai jasotzen genuen eta Bergaran dagoen Elikagaien Bankura joan ginen, bildutakoa entregatzera. Aurten, helburua



kopurua hori bikoiztea da. Beraz, herritarrei dei egin nahi diegu parte hartzeko", esan digute.

Proiektua La Salle ikastetxeko Maitane, Amaia, Malen eta Anek

"Aurten 2.500 kilo elikagai batzea espero dugu. Elikagaien Bankura joango da jasotako guztia"

sortu zuten LHko seigarren mailan zeudenean, familia askori eragiten zien elikadura-krisi gero eta handiagoak hunkituta. "Hasieran lau ginen, baina gero laguntza eskatu genuen gelako lagun artean eta gaur egun 15 lagun inguru gara. Proiektu hau egin genuen konturatu ginelako jende asko txarto ari zela pasatzen, beharra zuela. Gure laguntza ondo etorriko litzaiekeela pentsatu genuen", diote.

Besoak gurutzatuta geratu beharrean, neska gazte hauek neurriak hartzea erabaki zuten. Oraindik helduen esperientziarik eta baliabiderik ez bazuten ere, zerbait egiteko erabakia hartu zuten. Horrela sortu zen "Munduari Kolorea Ematen" izeneko elkarte, euren inguruan beharra dutenei elikagaiak ematea helburu zuena.

13 urteko gazteak dira. Talde hau berezi egiten duena daukaten ilusioa eta gogoia dira. Gazteak izan arren, gizarte-arazoez jabetzea eta horri buruz zerbait egiteko helduak izan arte ez itzarotea garrantzitsua zela ulertu zuten. Iazko bilketaren ondoren Gipuzkoako Elikagaien Bankuko kideek esker ona azaldu zieten, "horren gazteak izan arren, horrelako laguntza handia emateagatik", eta Gipuzkoako Zuzendaritzako ordezkarien eskutik diploma bana eta opari batzuk jaso zituzten neskek pozarren.



JOSU AGIRRE

“Naves disponibles”

Nonbaitera *heldu* garelakoan, bizitza honetan pertsona *helduak* garela esaten diogu, euskara dugunok behintzat, geure buruari. Pertsona bezala, hazkuntza edo garapen prozesua amaitutzat eman dezakegun unea litzateke, askotan oso argi ez izan arren nora –eta nola– *heldu* garen.

Azken urte hauetan abuztuko oporretan kanpin-denda hartu eta Nafarroa aldera joan ohi izan gara. Hain zuzen ere Lizarrako kanpina ezagutu eta, urte batzuetatik hona, bertako bezeroak bilakatu gara. Kanpina hiri-gunetik kanpo dago, industrialde baten ondoan.

Duela bizpahiru urte gertatu zitzaidan. Errekaduren bat egiteko edo, goiz batean semea eta biok kanpinetik irten ginen kotxean. Aipatu industrialdera ailegatu eta ondoko bidegurutze batean “stop” seinale aurrean gelditu behar izan nuen autoa.

Ezkerrera eta eskuinera begiratzen nengoen, ea noiz emango ziguten bidea aurrera jarraitu ahal izateko eta ez nuen erreparatu aurre-aurrean zegoen pabiloi handi baten hormatik zintzilik hauxe zioen pankarta erraldoia zegoela: “*NAVES DISPONIBLES*”.

Bapatean, semeak (orduantxe 8 edo 9 urte izango zituen asko jota):
- “*Aitxa, aitxa...! Horra sartu behar gara, begira... irakurri, naves disponibles dauzkatela!*”

- “*Ehh...? zer..?*”

Hasiera batean mutikoari ez nion piparrik ere ulertu. Ni trafikoan kontzentratua nengoen, alde batera eta bestera begiratzen, atzetik ere beste auto bat... Baina pankarta hura irakurri eta barneko “klik” bat sumatu ondoren... bai, orduan barrez lehertzen hasi ginen biok. Jakina, gu noiz mugituko ginen zain zegoen atzeko kotxeko gidariarentzat egoera ez zen izan agian hain hain graziosoa... zer egingo diogu ba!

Esaldi hori *helduei* zuzenduta zegoen, baina umeak espazio-ontziak irudikatu zituen, bestelako betaurrekoekin irakurri zuelako kartel hura; nolabait *pareidolia* izeneko fenomenoarekin gertatzen den bezala (objektu arruntetan itxura ezaguna duten irudiak osatzeko gizakiok dugun joera, normalki aurpegiak). Seme maiteak atea ireki eta beste ikuspegi bat erakutsi zidan. Posible izan nuen klik egin eta, gidatzeari utzi gabe, berarekin batera helduen munduaren mugatik une batez, behintzat, ateratzea.

Nire heldutasunetik, oso eskertuta nago semearekin.

“Esaldi hori helduei zuzenduta zegoen, baina umeak espazio-ontziak irudikatu zituen, bestelako betaurrekoekin irakurri zuelako kartel hura”



Domekako saioa Portalean izango da, 11:00etan hasi eta 13:00etan amaitzeko.

Sormen eta mugimendu saioa etzi Portalean BASH Kooperatibarekin

Aniztasun funtzionala duten gazteentzat sormen eta mugimendu saioak eskaintzen dituen BASH Kooperatibaren eskutik, domekan saioa egingo dute Portalean, 11:00etatik 13:00era, eta partaide berriak gonbidatu nahi dituzte "ondo pasatzera". Eibar Mugimenduan programaren barruan, izena emateko asociacionbash@gmail.com helbidera idatzi edo 688819611 telefono zenbakira deitu daiteke.

Azaldutenez, "gure helburua ikaskuntza eta garapen pertsonalerako espazio segurua sortzea da. Hiru urte daramatzagu Eibarko Udalarekin lanean, eta pozik gaude uda ostean Eibar Mugimenduan programari jarraipena emateko". 2018an Arrasaten martxan jarri zuten BASH taldekoek pertsonengan eta bakoitzak duen talentuan sinesten dute. Horregatik, sormena eta mugimendua sortuz, aniztasun funtzionala dute nentzako saioak eskaintzen dituzte. 2021ean egin zuten lehenengoa



Eibarren, eta ia zoko otsailean apustu sendoago batekin etorri ziren: 'Eibar mugimenduan'.

BASH-etik diotenez, "aniztasun funtzionala duten gazteentzat espazioak transformatu nahi genituen, gure esperientziatik eta ikuspuntu-tik ikusten gure elako transformazio horrek ondo egin ahal zela. Ez bakarrik maila pertsonalean, baita talde-lanari dagokionean ere". Horretarako, hiru lerro markatu zituzten: "Batetik, ikastolen barruan, ZIG (Zeregin Ikaskuntza Gela) geletan; Eibarko ZIG eskolan ere bagaude. Bigarrenik, aisialdirako ematen ditugunak daude, udalen bitartez bideratzen ditugun espazioak: bi orduko saioak izaten dira eta aniztasun funtzionala duten gazteekin mugimendua eta sormena lantzen ditugu. Eta hirugarrenik, kirol elkarrekin gabiltza lanean ekitaldi puntaletan".

"Eibar mugimenduan"

Domekako saioaren inguruan, eta antolatzaileek diotenez, "mugimenduen bidez, eta gorputza ardatz hartuta, jokoen eta dantzen bidez landuko duguna sormenari lotuta egongo da, beti ere bakoitzari jokatzeko aukera eskainiz; horregatik moldatzen ditugu dinamika guztiak bakoitzaren ezaugarrietara".

Udalarekin adostutako akordioari jarraituta, "Eibar mugimenduan" proiektuak indarrean jarraitzen du, hileroko saioak antolatuz. Orain dela bi urtetik hona daramaten martxarekin "pozarren" daude BASH taldekoak: "Egia esan, jende berdinarekin egiten dugu lan, eurekin osatutako whatsapp taldea aprobetxatuz. Primeran egokitu gara euren prozesu eta beharrei, eta talde moduan zein indibidualki landutako helburuak betetzen dihardugu". Hala ere, jende berriari ere irekita daude ekimenarekin aurrera jarraitzeko bidean.

Legarreko auzoari soinu banda zuzenean ipintzeko gogo biziz

Datorren asteburuan, irailaren 30ean, egingo da EMGE Fest musika jaialdia Legarren, bertako lokalen gaineko parkean. Egun horretan kontzertua emango dutenen artean Mikel Urizar *Purgui*, Antxon Gonzalez, David Carballo (*Karba*), Mikel Ojanguren eta Borja Etxebarría *Tiri* daude eta beraiek kontatu dizkigute jaialdiaren nondik norakoak.

BIDEOA



Aurtengo jaialdia antolatzeke ardurara Mikel Urizar *Purgui* hartu du bere gain: “Udalarekin daukagun hitzarmenean urtero zerbait antolatu behar dugula dago jasota, eta orduan urtero egiten dugu kontzertu edo jaialdiren bat. Dirulaguntza jasotzen dugu, kontzertua antolatzeke, eta ez badugu egiten laguntza galdu egingo genuke. Horregatik, urtero egiten dugu. Azkenean hemen, lokaletan egoten garen taldeko kideen artean prestatzen dugu dena. Urte batean batek, hurrengo batean beste batek... eta aurtenera tokatu zait. Beste barik”. Lekua aukeratzeko orduan ere, taldeko kideen artean berba egiten dute, kontzertua non emango duten adosteko.

Aurtengo jaialdiko kartela David Karbak, Markos Untzetak, Zapatu Beltzak, Judas Argaratek, Gorka Beatok eta askoren jakinmina piztu duen beste partaide batek, Eibar Opina DJ-k osatzen dute. Bakoitzak egiten duen musika estiloari begiratzuz gero, kartela osatzen dutenen artean denetarik dago: “Markos Untzetak folk-rock-pop modukoa egiten du. Gorka Beato DJ-a da eta berak elektronikoa egi-

E.M.G.E FEST
Irailak 30, Larunbata. 16:00h Legarre

Zapatu Beltza	Judas Argarate
Markos Untzeta	Beato
David Karba	Eibar Opina DJs

ten du batez ere. Zapatu Beltza taldea, berriz, Black Sabbath taldeari eskainitako tributoa da, beraz, metala jotzen du. Judas Argaratek ere metala egiten du eta David Karbak, berriz, elektronika eta post-rocka”.



Talde gehienek urteak daramatzate Legarreko lokaletan eta beraien arteko harremana oso ona da.



Gorka Beato DJ-ak urteetako eskarmentua dauka musika elektronikoa "pintxatzeko" kontuetan.

Jaialdia arratsaldeko 16:00ak aldera hasi eta 23:00etan amaituko da, "talde bakoitzarentzat ordubete-edo egongo da". Taldeen ordena zehazteke dago oraindik, datozen egunetan beraien artean berba egin eta bakoitzak noiz joko duen lotzen joango dira.

>>> Udalak Legarreko lokalak zabaldu zituenetik, Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak kudeatzen ditu instalazioak

Legarreko lokaletan entseguak egiten dituzten talde guztiek urteak daramatzate musikagintzan, batzuk betiko taldeekin batera, eta tarteka beraien artean batu eta nahastu ere egiten dira, proiektu berrietara edo sasoiari sasoiakora moldatzen joateko.

Gaur egungo gazteen artean elektronikoa beste estilo batzuk baino arrakasta handiagoa ote duen galdetuta, erantzun garbirik ez dagoela pentsatzen dute. Karbak dioenez, "posible da hala izatea, baliteke elektronikoa indar handiagoa izatea, baina ez dut uste hau moda kontua denik. Azkenean hemen denetarik dago: pop-folka, metala, elektronika... Agian Beatorena gazteentzat izan daiteke, baina nirea ez behintzat".



Auzoko jaien orde

Bestalde, EMGE Fest Legarren izateari xarma berezi bat ikusten diote: “Aurtengo jaialdia Legarren egingo dugunez, jendeak lokalak ikusteko aukera izango du, alde horretatik, tokia beste urte batzuetan baino politagoa dela uste dugu. Gainera, auzoko jairik ez denez ospatuko, behintzat jaiak izaten ziren egunetan zerbait egongo da auzoan”.

Entseguak egiteko bederatzik lokal

Eibarko Udalak 1996an zabaldu zuen Legarreko musika sorkuntzarako gunea, herriko musikariek urteetan eskatutakoari erantzuteko. Sortu zen une beretik, Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak kudeatu ditu instalazioak. Gaur egun bederatzik lokal daude, entseguetarako, eta grabazioak egiteko estudio bat ere badago. Bertan grabatu dira Eibarko zein kanpoko talde askoren diskoak, ahotsak... eta azken aldi honetan raperoek asko erabiltzen duten zerbitzua dela esan digute.



Markos Untzetak eskainiko duen musika gainontzeko taldeek joko dutena baino lasaia izango da. Izan ere, kartela osatzeko orduan estilo ezberdinak uztartu dituzte antolatzaileek. Beheko irudian, Judas Argarate taldea.

Progresiboen hilabetea

2x189€

mó betaurreko progresibo

herriko negozioketarik izan daitezke

Bidebarrieta, 2
943 20 05 22
EIBAR

eskatu hitordua
WhatsApp bidez

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

Eibarko Txirrindulari Elkarteak Bizikleta Eguna antolatu du domekarako

Adin guztietako jendearentzat ego- kitutako egitaraua prestatu du gure herriko txirrindulari elkarteak domeka goizerako. 10:00etan Untzagatik abiatuko da zikloturisten eta mountain-bikean arituko direnen jardunbidea: “Zikloturistek kostalderantz joko duten bitartean, bikerak Eibar inguratzen duten mendietatik ibiliko dira”. Ordu erdi geroago, 10:30ean, gazteagoen izen-ematea zabalduko da, 11:00etatik aurrera Eibarren prestatu duten bidegorria ezagutzen joateko: Untzagatik irtenda, Mekolatik pasatuko dira, Amañara heldu eta handik berriro bueltatzeko. 11:30ean 8tik 10 urtera artekoen tartea izango da, eurek osa-

tuko baitituzte zirkuitoaren bitzuli. Ordu laurden geroago, 12:45ean, 11 eta 12 urtekoen txanda izango da, aipatutako zirkuitoari hiru itzuli egiteko. Eta 12:00etan txikienentzat prestatutako ginkana osatzen hasiko dira. Eurekin bilduko dira baita, euren itzulia amaituta, aurretik 12:00etan Apalategin bildutako Debatik etorriko diren zikloturistak eta mendietatik jaitsiko diren bikerak, anbulatorioiotik elkarrekin Untzagan sartzeko: “Bertan salda eta txorizoa egongo da helduentzat, txikienek zozketan sartu eta opariak jasoko dituzten bitartean”. Horrela agurtuko dute Día del Pedal edo Bizikleta Eguna.



Bittor Astigarraga Bizkaiko Hiru-Txirlo txapelketaren irabazlea

Gure herriko bolatokiko ordezkariek nagusi izan dira aurreko zapa-tuan Aulestiko Santa Eufemiako bolatokian amaitu zen Bizkaiko hiru-txirlo txapelketan. 12 jardunalditan jokaturako txapelketaren amaieran, Bittor Astigarragaren atzetik Sergio Rodriguez taldeki-dea sailkatu zen, hirugarrena Javier Osoro elgoibartarra izan zen, eta laugarren postua ere Asola Berriko Garikoitz Rodriguezentzat izan zen. Ikusten denez, gipuzkoarrek dominatu zuten sailkapen orokorra. Hurrengo topaketa bolariantzat Mutrikuko Kalbarioetako jaietakoia izango da: hilaren 25eko hori arratsaldeko 17:30ean hasiko da.



Mek Eibar eskubaloiko lehen taldeak galtzen hasi dute denboraldi berria

Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatzeko duen emakumezkoen taldeak 27-19 galdu zuen Aiala Zarautzekin. Aurkaria talde indartsua da eta lan zaila izan zuen Andoni Perezek zuzentzen duen taldeak. Eibartarren aldetik Irati San Martin eta Lucia Zubizarreta izan ziren goletzailer nagusiak. 1. Nazional Mailako

gizonezkoen taldeak ez zuen zorte hoberik izan, eta Gatzoko BM Romoren aurrean 34-27 amore eman zuen. Fernando Fernandez taldean Mikel Zuloaga izan zen goletzaile nagusia, baina aurtan Eibartik Bizkaiko taldera joandako Jon Barruetabeña (*argaskian*), 10 golekin, nabarmendu zen.



Eibar FT-ko taldeak maila guztietan aurpegia emateko prest

Krudela izan zen Eibar FTaren itzulera maila nagusira. Etxekoak nor baino nor gehiago aritu ziren Levante Las Planasekin, baina esku hutsik geratu ziren azkenean. Bigarren zatian izan ziren hiru golak: penaltiz sartu zuten bisitariek lehena 58. minutuan; Ane Camposek berdindu egin zuen 85.ean; eta, luzapeanean, 93.ean, kanpotarren bigarren golak esku hutsik laga zuen Eibar. Galdu arren, oso ondo aritu ziren Yerai Martinek entrenatutakoak Ipuruan zaletuen aurrean jokatu-tako Ligako estreinaldian. Asteburu honetan ez dute partidurik izango F Ligan selekzioaren partiduak eragindako geldialdiarengatik.

Bestalde, bi filialek aurreko asteburuan ekin zioten txapelketari, B taldeak 3. RFEF mailan eta C taldeak Euskal Ligan. Ander Ojangurenek zuzentzen duen B taldeak bigarren denboraldia du maila horretan, eta Tolosan 1-3 irabazita eta Mulier-i 1-0 Unben, une honetan lider dago. Sara Lombarderok gidatzen duen emakumezkoen futbolaren egiturako C taldeak ere bigarren



Simic eta Qasmi, azken bi fitxaketak.



F Ligara igo den emakumezkoen taldeak Ipuruan jokatu du denboraldi honetan.

denboraldia du Euskal Ligan. Eta honek ere orain arte jokatu-tako partidu biak irabazi ditu (Ugaon 2-3 eta Unben 3-2 Anaitasunari) eta lidergoan kokatu da. Maila gazteagoetara jaitxita, kadeteetako Ohorezko Mailakoak 9-0 erraz irabazi zion Leioako Emakumeak taldeari azken jardunaldian.

Harrobiko taldeak indartsu

Eibar FT Bigarren Mailan bizitzen hasi den hirugarren denboraldi hau nahiko desberdina hasi zaigu. Aurreko bietan 1. Mailara igotzeko aukera garbiak izan eta gero hartutako muturrekoek entrenatzailer aldaketa ekarri dute. Taldeari gehiago kostatzen ari zaio mailari neurria hartzea eta azken jardunaldian Ferrolgo Racing-ari irabaztean lortutako hiru puntuek lasaitasun tarte eskaini dio. Stoichkov-ek eta Arbillak lortutako golekin taldea jaitziera postuetatik irten da eta Cartagenan izango du gaur bertan erronka berri bat.

3. RFEF Mailan jokatzen duen CD Vitoria lehen filialak azken denboraldiko blokeari eutsi dio eta, azken igoerako play off-ean huts

egin ondoren, oraingoan ere mailaz igotzen ahaleginduko da Jokin Aranberrirren taldea. Lehen jardunaldian Urdulizen irabazi bazuen ere, bigarren honetan Lagun Onak-ekin bana berdintzearekin konformatu behar izan zuen Unben; lau punturekin dugu, beraz. Eskualdeko Ohorezko Mailan jokatzen duen Eibar Urko bigarren filialak indartsu hasi du liga beste behin eta, Ordiziari (kanpoan, 1-4) eta Oiartzuni (etxean, 4-1) irabazi eta gero, lider dugu sailkapenean. Iñigo Perezek zuzentzen duen taldea txapelidun izateko bidean dugu berriro.

Nazional Ohorezko Mailan jokatzen duen jubenetako lehen taldeak, azken partiduan Logroñon bina berdindu ondoren, hiru partidutan zazpi puntu lortu ditu eta goiko aldean dago. Nazional Ligan jokatzen duen B taldeak, bestalde, orain arte partidu bat irabazi eta bestea galdu du. Kadeteen mailako taldeei dagokienez, azken jardunaldian Euskal Ligakoak 3-1 irabazi zion Portugaleteri, Ohorezko Mailakoak Zumaia-koari 2-0 nagusitzen zitzaion bitartean.



EMAKUMEZKOEN
LEHEN TALDEA
2023/24
F Liga
1. Maila



GIZONEZKOEN
LEHEN TALDEA
2023/24
LaLiga
2. Maila





Euskara ikastaro bereziak 16 eta 18 urte bitartekoentzat

Europako Erreferentzia Marko Estandarrean C1 maila parekatzen duen euskara-azterketa (lehengo EGA) prestatzeko ikastaro berezia eskainiko dute 16-18 urteko gazteentzat Eibarko bi euskaltegietan, Udal Euskaltegian eta AEK Euskaltegian. Azaldu digutenez, “Batxilergora arteko ikasketak euskaraz egin dituzten ikasleek euskarazko B2 mailaren egiaztagiria jasotzen dute, baina aisialdian aritzeko nahiz lan munduko lanpostu askotarako euskara maila bat gehiago, hain zuzen ere C1 maila egiaztatzea eskatzen da”. Hori dela eta, azterketara aurkezteko asmoa duten 16-18 urte bitarteko gazteei gauzak errazteko, C1 mailako urte osoko ikastaroarengatik 20 euro baino ez dituzte ordainduko, euskaltegi batean zein bestean. Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko, Udal Euskaltegiara (943700912 telefonora deitu edo euskaltegia@eibar.eus helbidera idatzita) zein AEK euskaltegiara (943201379 telefonora deitu edo eibar@eak.eus helbidera idatzita) jo daiteke, lehenbailehen, matrikulazioa datorren astean itxiko dute eta.

Irigoieneren “Loretxuak” Iruñean

Jose Luis Irigoien argazkilaria lanak ikus daitezke gaurtik aurrera Iruñean, Nafarroako Argazki eta Zinematografia Elkartearen (AFCN) Contraluz aretoan. *Loretxuak* izenburuko erakusketa urriaren 27ra arte egongo da zabalik, eguen eta barixakuetan, 18:30etik 20:30era.



Japoniarrek moldatutako abestiak joko dituzte gaur

Eibarko Musika Bandak gaur emango du ikasturte berriko lehen kontzertua, 20:00etan Toribio Etxebarria kalean (euria eginez gero, Errebalen). Andoni Vazquez zuzendariaren arabera, “bereztasun gisa, Japoniako musikoek moldatutako abestiak joko ditugu. Arraroa dela pentsa daiteke, baina gu oso ohituta gaude horrelako moldaketekin, eta oso ikusgarriak izaten dira”. Oso abesti ezagunak eskainiko dituzte: *African Symphony* (N. Iwai), *La Sirenita Medley* (T. Hoshide), *Pirates Of the Caribbean Medley* (K. Morita), *Super Mario Bros* (T. Hoshide) eta *The Lion King* (K. Morita).



Arrateko santutegiko lau koadroak Alemanian ikusgai

Arrateko santutegirako Ignacio Zuloagak pintatu zituen lau margolanak aldi baterako laga dituzte, Alemanian erakusteko. Aurreko asteburuan Municheko Kuntshalle museoa zabalduta zuten “Mythos Spanien. Ignacio Zuloaga 1870-1945” izeneko erakusketa Eibarko pintoreari Alemanian eskainitako “lehen erakusketa integrala” da, eta han ikus daitezke koadroak. Muestra hori Hamburgoko Bucerius Kunst Forumera aldatuko dute ondoren, maiatzaren 26ra arte erakusteko. Zuloagaren 80 artelan bildu dituzte erakusketa horretan.



Kolonbiako eztanda sozialean egindako argazkiak ikusgai

Daniela Agudelo Pintaren argazki erakusketa antolatu dute Untzagako jubilatutako etxekoek, Eibarko Klub Deportiboarekin eta Einer Rodriguez Ponce argazkilariarekin elkarlanean. “Memorias de un estallido” izenburuari jarraituz, Kolonbian 2021ean gertatutako eztanda sozialean egindako argazki-dokumentalak bildu ditu egileak, bere sorterrian, Bugan (Cauca Bailara) bizi izandakoa argazki bidez erakusteko. Gaur zabalduko dute eta urriaren 8ra arte egongo da ikusteko moduan, 19:15etik 21:15era (astelehenetik barixakura) eta 12:00etatik 14:00etara (zapatu eta domeketan).



Deba bailarako artisten erakusketa kolektiboa

“Zergatik? Hargatik!” erakusketa zabalduko dute gaur arratsaldean Portalean. Hemeretzi artistaren (gehienak Debarrena eta Debagoienekoak) lanak biltzen ditu: Peio Alberdi, Jose Arana, Iñigo Arregi, Ricardo Azkargorta, Jose Antonio Azpilikueta, Baroja Collet, Marina Barrena, Jose Ramon Elorza, Aitor Etxeberria, Juan Luis Goikolea, Alberto Ibañez, Jose Felix Igartua, Vicente Iriondo, Keixeta, Asier Laspiur, Bingen de Pedro, Aitor Sarasketa, Barbara Stammel eta Fernando de Vicente. Urriaren 22ra arte joan daiteke ikustera, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.



Erre Produkzioak taldearen “Todas las hijas” antzezlan

Erre Produkzioak taldeak “Todas las hijas” antzezlan aurkeztuko du datorren asteko barixakuan (hilak 29), 19:00etan Coliseon. Andres Lima da zuzendaria eta antzezleak, berriz, Ane Gabarain, Gemma Martinez, Maribel Salas, Sol Maguna eta Vito Rogado. Diotenez, “Iana bost aktoreren istorioa da, haien bizitzaren ipuina”. Sarrerak 12 euro balio du (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin).

Bertso musikatuak Errebelen

Lankultur zerbitzuak, Hankamotxak bertso eskolak eta Eibarko Udalak antolatuta, bertso jaialdi musikatu egingo da irailaren 29an, 22:00etan, Errebal Plazan. Bertan Miren Artetxe, Jokin Bergara, Beñat Gaztelumendi eta Ane Labaka bertsolariak arituko dira, Garikoitz Otamendi eta Ixak Arruti musikariek lagunduta. Gai-jartzailea Ainhoa Urien izango da.




‘Gernika’ koadroari buruzko jardunaldia egingo da Eibarren

“Gernikak: arte bidezko gorpuzteak eta islak” jardunaldia antolatu dute Eibarren UPV/EHuko MHLI (Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan) ikerketa-taldeak eta UEUK. Urriaren 6an izango den topaketa honen helburua “ikertzaileak, artistak eta obren hartzaileak harremanetan jarri eta nork bere ‘Gernika’ sortzeko, interpretatzeko, transmititzeko eta zabaltzeko aukera ematea da”. Informazio gehiago: www.ueu.eus



AURKITU DESBERDINTASUNAK



L A B I R I N T O A

		2			3		
2				7	1		
9	5	4					
	7		1			2	
4		6			5	1	
5			7			4	
					8	6	3
		2	6				5
	8			5			

2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2

soluzioa

S U D O K U

2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2

soluzioa

		3	1	8		6		
					6	2		
				4			7	5
	8		5				2	
9	2					4		3
	4				3		9	
2	7			5				
		5	9					
		8		6	7	9		



Urko-Oiz-Egoarbitza. Txikiak bai, baina eskasak ez. Pedro Elizondo



**Jesus M^a "Ketxu"
Iraola Zubizarreta**

2023/09/17

"Ana Mariren
lagunek
ez zaitugu
ahaztuko"



**Oier
Areitio Blasco**

4. URTEURRENA
2019/09/23

"Betirako
gure
bihotzetan"

Maite zaitugu
- ETXEKOAK -



**Jon Gorosabel
Foruria**

5. URTEURRENA
2018/09/22



**Iñaki Azpiri
Arrillaga "KAPURRO"**

3. URTEURRENA
2020/09/23



"Betirako gure bihotzetan maite izango zaituztegu"
- ETXEKOAK -



**Julian
Moro Gil**

4. URTEURRENA
2019/09/25

"Beti izango zara
gure bihotzetan"

- ZURE FAMILIA -



**ESKERTZAK ETA
URTEURRENAK**

Urkizu, 11 - solainurtea
publizitatea@etakitto.eus
688 62 76 89

Irailak 22 / 28

BARIXAKUA 22

MUSIKA

20:00 Eibarko Musika Banda. Toribio Etxebarria (euria egiten badu, Errebal Plazan).



ZAPATUA 23

JAIAK

12:00/16:00 Bien Aparecida Amabirjinaren jaiak. Pintxo-potea, Kantabriako produktuekin. Ipuruako bolatokia eta Jardines taberna.
18:00 Igel-toka.
20:30 Afaria, bazkide eta lagunentzat. Ipuruako bolatokia.



DOMEKA 24

BIZIKLETAREN EGUNA

10:00 Mountain-bike eta zikloturista martzen irteera Untzagatik.
10:30 Izen-emateak.
11:00 Eibarko bidegorria ezagutuz.
11:30 Herri erdiko zirkuitoa (8-10 urte).
11:45 Herri-erdiko zirkuitoa (11-12 urte).
12:00 Gaztetxoentzako ibilbidea eta zikloturisten helmuga. Untzagan.

TAILERRA

11:00/13:00 Eibar Mugimenduan. Sormena eta mugimendua, aniztasun funtzionala duten gazteentzat. Portalea.



ASTELEHENA 25

ASTEKLIMA 2023

10:00/13:30 & 17:00/19:30 "Klima-aldaketari aurre" erakusketa. Untzaga.
17:00/17:45 & 18:30/19:15 Jolasak (6-12 urtekoentzat). Untzaga.

MARTITZENA 26

ASTEKLIMA 2023

10:00/13:30 "Klima-aldaketari aurre" erakusketa. Untzaga.

EGUAZTENA 27

ASTEKLIMA 2023

18:00 Dokumentala: "Los límites de nuestro planeta. Una mirada científica". Coliseo.

EGUENA 28

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

ASTEKLIMA 2023

18:00 Antzerkia: "Azken eguzkilorea". 5-12 urtekoentzat. Coliseo.

JAIAK

18:00 San Miguel egunaren bezpera. Kanpai-iraulketa. Aginaga.

ERAKUSKETAK

Irailaren 30era arte:

- **JOSE LUIS GARCIA DE MADINABEITIA**ren argazkiak. (Klub Deportiboa).
- **TXEMA ARTETX**eren argazkiak: "Bosque Mágico San Leonardo" (Portalea taberna).

Urriaren 1era arte:

- "TAILERRETIK BULEGORA. EIBARKO PRODUKTUAK". (Armagintzaren Museoa).

Urriaren 8ra arte:

- "Memorias de un estallido" **DANIELA AGUDELO PINTADO**ren argazkiak. (Untzaga Zentro Soziala).

Urriaren 22ra arte:

- "ZERGATIK? HARGATIK!". (Portalea).

Eskualdeko Agenda

DEBA

22an (BARIXAKUA)

KAFE-TERTULIA

18:30 / Lila

"7. Artea" (Loredi Salegi)



ERMUA

22an (BARIXAKUA)

ANTZERKIA

20:30 / Ermua Antzokia

"Las que limpian"

(A Panadaria konpainia)



MUTRIKU

23an (ZAPATUA)

GOITIBEHERRAK

16:30 / Kalbario-Mutriku,

22 bihurtunekin

Euskal Koparako

baliogarria



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 23an: 22:30
- 24an: 20:00
- 25ean: 19:30

“La manzana de oro”
KOMEDIA



2022/Espainia/100'
Zuzendaria: Jaime Chavarri
Aktoreak: Sergi Lopez,
Marta Nieto, Adrian Lastra
Jardunaldiak/Poesia mundua

2 ARETOA

- 23an: 17:00, 19:45, 22:30
- 24an: 17:00, 20:00
- 25ean: 19:30

“Verano en rojo”
THRILLER-A



2023/Espainia/101'
Zuzendaria: Belen Macias
Aktoreak: Maria Nieto,
Jose Coronado, Luis Callejo
Poliziakoa/Erljioa

ANTZOKIA

- 23an: 17:00, 19:45, 22:30
- 24an: 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- 25ean: 19:30

“Misterio en Venecia”
UMOREZKOIA



2023/AEB/104'
Zuzendaria: Kenneth Branagh
Aktoreak: Michelle Yeoh,
Jamie Dornan, Tina Fey
Intriga/Hilketa/40. hamarkada

ANTZOKIA

- 23an: 17:00
- 24an: 17:00

“Rally Road Racers”
ANIMAZIOIA



2023/AEB/92'
Zuzendaria: Ross Venokur
Komedia/Automobilismoa

1 ARETOA

- 23an: 19:45

“La guerra de los Lulus”
DRAMA

2023/Frantzia/109'
Zuzendaria: Yann Samuell
Aktoreak: Isabelle Carré,
Tom Castaing, Léonard Fauquet
Abenturak/Nerabezaroa



Izadi
LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

**San Andres
Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

estolara buelta! Eskola-materiala,
papertegia, motxilak,
idazmahaiak, aukiak...

elite ISASI kalea, 29
BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK
KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

EQUIPAMIENTO DE OFICINAS 943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **ALAITZ**, abuztuaren 14an 11 urte bete zenuduazen-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Gaizka eta Lukaren partez.



Zorionak, **NOA**, hillaen 20an 4 urte bete zenuduazen-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Gaizka eta Lukaren partez.



Zorionak, **TITO!!!** Musu potolo-potolo bat. Asko maitte zaittugu!!!



Zorionak, **IKER**, hillaen 23an 11 urte beteko dozuz-eta. Asko maite zaittugu. Musu pottolo bat famelixaren partez.



Zorionak, **MALEN**, txapelduna! Eguaztenian 8 urte bete zenuduazen-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **LUKE**, eta patxo infinitua, polittori!



Zorionak, **HELENE** eta **AMETS!** Abuztuaren 12xan eta irailaren 20xan 9 eta 13 urte bete dozuez-eta. Patxo potolo bana etxekuen partez.



Eibar eta Elorrixon eguzkitxo bat jaio zan hillaen 13an. Ongi etorri, **KATTALIN**, **KEPA**ren ondora!



Zorionak, **EVA** eta **NOAH**, astelehenian 6 urte beteko dozuez-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, **MARIJE** eta **JOSE JAVIER**, gaur 39 urte dira-eta ezkondu zinaziela. Edarto ospatuko dogu! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **PAULA** eta **MARTINA**, domekan 4 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JUNE**, hillaen 28xan 6 urte egingo dozuzelako. Famelixa guztiaren partetik.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Eibarko erdigunean. Guztiz berritua eta argitsua. Balkoia, 3 logela eta igogailuarekin. 634430647.

1.2. Errentan

- Mutil batek logela bilatzen du Elgoibar edo Mendaron. 604201186.
- Pisua alokagai Eibarko erdi aldean. 943031363.
- Pisua alokagai Legarre-Gain kalean. 3 logela. Berriztua. Eguzkitsua. Igogailua. 675702473.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garajea itxia alokagai San Pion. Zabala eta sarrera onarekin. 652775746.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da andrak zaintzeko (tituluarekin), baita umeak ere eta garbiketarak egiteko. 612223075.
- Gizonezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta peoi bezala. 604220024.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 722408667.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. Esperientzia. 638083826.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.
- Neska eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. 604986450.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Externa. 631159373.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. 614242172.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 632881068.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pintore edo peoi lanak egiteko. 632881068.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Baita gauzez eta jai-egunetan. 631425686.
- Emakume euskalduna eskaintzen da zainketa lanetarako (agiri sozio-sanitarioa) eta etxeko lanak egiteko. Baita orduka ere. Kotxearekin. 657794652.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. 676553093.
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak goizez zein arratsalde zaindu. Esperientzia eta Magisteritza ikasketak. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiei lagundu eta garbiketarak egiteko. 643309687.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko, eta etxeak edo bulegiak garbitzeko. 631102067.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera

- edo sukaldari-laguntzaile jarduteko, eta etxeak edo bulegiak garbitzeko. 641456656.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulu sozio-sanitarioa) eta garbiketarak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 688805742.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 637222318.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta txakurrak pasiatzeko. 641756213.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarak egiteko eta txakurrak pasiatzeko. 697958198.

4.2. Langile bila

- Eibarko akademia batek euskarra eta ingelesa maila altuko irakaslea behar du LHko partikularrak emateko. Bidali CVa: info@itzamna.eus

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.



osasun gida

Okulistikak



Recalde

Clinica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 20413



Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak



ELENA AIZPUN PODOLOGOA

838200124

kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A

943 12 14 93 / 696 555 208



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA

Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zenb.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zenb.)
Amagola Zubizarreta (122 Kolegiatu zenb.)



PODOLOGOA

Maidier
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zenb.

Psikologoak

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALEZ

Urkizu, 13 - behealdea
tel. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66

Bidebarrieta, 27-B,1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



943-206776



HELDU!

Ekintzailetza berritzailea
Emprendizaje innovador

EIBARKO UDALAK DEBEGESA ESKUALDEKO GARAPEN- AGENTZIAREKIN LANKIDETZAN SUSTATUKO EKINTZAIETZA PROGRAMA

ZEIN HELBURU DITU?

- Eibarko eta eskualdeko ekonomiaren lehiakortasuna bultzatzea.
- Eibarren ekosistema ekintzailea sustatzea.
- Eskualdeko premiei erantzungo dieten ideien pull up bat sortzea.
- Enpresa-ideia eibarren implementatu nahi duten ekintzaileen eskura tresna eta profesional onenak jartzea.

*Ezagutu aurreko edizioako parte hartzaileen
esperientziak QR estekan sakatuta*

